

# **EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUN ALORREKO TEKNIKARIEN LAN-POLTSA**

## **1. ARIKETA**

**B ZATIA. Proba teoriko- praktikoa**

**2011/12/16**

**PROBA PRAKTIKOA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN ARLOKO  
TEKNIKARIEN LAN-POLTSA OSATZEKO HAUTAKETA-PROZESUARI DAGOKIONA -  
2011**

**1. GALDERA (10 puntu)**

**Gomendatzen den denbora: 1 h 30 min**

Zure saileko berdintasuneko administrazio-unitatearen arduradun gisa, esku hartzeko programa bat diseinatu duzu zure eskumen-esparruaren barruan. Zure zuzendariak bilera baterako deia egin die saileko gainontzeko zuzendariari eta arloko arduradunei, programa aurkezteko eta programari buruzko iritziak eta ekarpenak eskatzeko.

Egin bilera horretarako gidoia, eta **zehaztu** bileraren puntuak, eta **puntu bakoitzerako**:

- Nork azalduko duen (*adierazi labur-labur zergatik proposatzen duzun hori*).
- Zer informazio emango den (*hala badagokio, adierazi zergatik sartzen den puntu hori*).
- Zer informazio-iturri edo erreferentzia dokumental emango den (*hala badagokio, zer material erabili eta/edo emango den*).

**Proba honetan, KONTUA EZ DA PROGRAMAREN EDUKIA AZALTZEA, ezpada BILERAREN PLANGINTZA ZEHAZTEA.**

Denboraren 1/3 erantzuna prestatzen erabiltzea gomendatzen dugu.

## **2. GALDERA (6 puntu)**

**Gomendatzen den denbora: ordu 1**

Zure saileko norbaitek biltzar batean parte hartu behar du, eta biltzar horretan, besteak beste, sailaren berdintasun plana azaldu behar du. Hori dela eta, zenbait diapositiba eskatzen dizkizu EAeko berdintasun politiken *erakunde mailako antolaketa eta arau-esparrua* erakusteko, batez ere, Eusko Jaurlaritzan eta Jaurlaritzaren sailetan.

Prestatu diapositiba horiek (gutxienez 3, gehienez 5)

Lau galdera labur – **Gomendatzen den denbora: 30 minutu**

## **3. GALDERA (puntu 1)**

Auzo-elkarte baten ordezkaria zure sailera, zure zerbitzura, etorri da, eta honako kexa hau egin du: auzoan saltoki berri bat ireki da, eta, ordezkari horren iritziz, saltoki horrek egin duen kanpaina sexista eta emakumeentzako iraingarria da. Zein izango litzateke zure erantzuna?

## **4. GALDERA (puntu 1)**

Bigarren mailako irakaskuntzako ikastetxe bateko guraso-elkartearen lehendakariak idatzi bat bidali du zure sailera. Idatzi horretan azaltzen denez, guraso-elkartearen iritziz, duela gutxi ikastetxean egin den antzezlan batek mezu sexistak eman ditu eta emakumeek gizartean duten zeregina gutxietsi du. Zer erantzun emango zenioke?, eta zer egingo zenuke?

## **5. GALDERA (puntu 1)**

Udal batek laguntza ekonomiko edo materiala eskatu dio zure sailari, herriko gazteentzat antolatu dituen kirol lehiaketa batean sari gisa entregatzeko. Lasterketa-konbinazio bat da proba (5 km korrika eta 10 km bizikletan). Lehenengo 10 postuetarako, saria lehen mailako futbol-partida baterako bidaia eta sarrera da, eta gainontzekoek kontsolazio-sariak jasoko dituzte. Zuzendariak eskaeraren balorazioa egiteko eskatzen dizu. Zein izango litzateke zure erantzuna?

## **6. GALDERA (puntu 1)**

Beste autonomia-erkidego bateko sail homologoko berdintasun arloko teknikari batek EAeko berdintasun-politikei buruzko informazioa eskatzen dizu, eta, bereziki, *Emakumearen Euskal Erakundearen Aholku Batzordeari* buruzkoa eta *“Emakumeen eta Gizonen Aukera-berdintasunaren aldeko enpresa laguntzaile” aitorpenari* buruzkoa. Zein izango litzateke zure erantzuna?

**BOLSA DE TRABAJO DE  
PERSONAL TÉCNICO EN  
MATERIA DE IGUALDAD DE  
MUJERES Y HOMBRES**

**1º EJERCICIO**

**Parte B) Prueba teórico- práctica**

**2011/12/16**

**PRUEBA PRÁCTICA CORRESPONDIENTE AL PROCESO SELECTIVO PARA LA PROVISIÓN DE BOLSA DE TRABAJO DE PERSONAL TÉCNICO EN MATERIA DE IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES – 2011**

**PREGUNTA 1 (10 puntos)**

**Tiempo recomendado: 1:30 horas**

Como responsable de la unidad administrativa de igualdad de su departamento ha diseñado un programa de intervención en su ámbito de competencia. Su directora o director ha convocado a una reunión al resto de directoras y directores y a las personas responsables de área del departamento a fin de presentar el programa y solicitar valoraciones y aportaciones al mismo.

Elabore **el guión** para esa reunión, **detallando** los puntos a tratar e indicando **para cada punto**:

- Quién expone ( *señale brevemente el motivo de su propuesta*).
- Qué información se expone ( *si procede indicar el motivo por el que se introduce ese punto*).
- Qué fuentes de información o referencias documentales se aportan ( *si procede indicar material a utilizar y/o entregar*).

**Esta prueba NO CONSISTE EN EXPONER EL CONTENIDO DEL PROGRAMA sino en **DETALLAR LA PLANIFICACIÓN DE LA REUNIÓN.****

Se recomienda dedicar al menos 1/3 del tiempo a preparar la respuesta.

## PREGUNTA 2 (6 puntos)

**Tiempo recomendado: 1 hora**

Alguien de su departamento va a participar en un congreso en el que tiene que exponer, entre otros temas, el plan de igualdad del departamento y le pide algunas diapositivas que muestren la *organización institucional* y el *marco normativo* de las políticas para la igualdad en la CAE y en concreto en el Gobierno Vasco y sus departamentos.

Elabore estas diapositivas (mínimo 3, máximo 5)

Cuatro preguntas breves - **Tiempo recomendado 30 minutos**

## PREGUNTA 3 (1 punto)

La representante de una asociación vecinal se dirige a su departamento, a su servicio, y expone la siguiente queja: En el barrio se ha abierto un nuevo comercio que ha llevado a cabo una campaña que considera sexista y ofensiva para las mujeres. ¿Cuál sería su respuesta?

## PREGUNTA 4 (1 punto)

La presidenta de una Asociación de madres y padres de un centro público de enseñanza secundaria envía un escrito su departamento señalando que la asociación considera que el contenido de una obra de teatro que se ha ofrecido en el centro escolar recientemente difunde mensajes sexistas y minusvalora el rol de las mujeres en la sociedad. ¿Qué respuesta le daría y como procedería?

## PREGUNTA 5 (1 punto)

Un ayuntamiento solicita a su departamento apoyo económico o material para entregar como premio en unas competiciones deportivas que ha organizado para las y los jóvenes de la localidad. Las pruebas consisten en una combinación de carreras (5 km a pie, 10 km en bici). Para los 10 primeros puestos el premio consiste en desplazamiento y entrada para un partido de fútbol de primera categoría, el resto recibirán diversos premios de consolación. Su directora le solicita una valoración de la petición. ¿Cuál sería su respuesta?

## PREGUNTA 6 (1 punto)

Una técnica de igualdad de un departamento homólogo al tuyo de otra Comunidad Autónoma te solicita información sobre las políticas de igualdad en la CAE y en concreto sobre la *Comisión Consultiva del Instituto Vasco de la Mujer* y sobre el *reconocimiento de empresa colaboradora en igualdad de mujeres y hombres*. ¿Cuál sería tu respuesta?

